

Egilea:

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Aldi hartan...

Eujenio Agirretxe ezagutzeko biderik zuze-nena berak 75 urte zituelarik argitaratu zuen *Aldi hartan eta Arantzazu aldean* liburua dugu. Berrehun orrialde inguru ditu, eta hil baino hamar urte lehenago argitaratu zuen, 1995ean.

Zertaz ari da «Aldi hartan» esatean? Bere bizi esperientziaren iraganaz dihardu. Berak zehazten ez badu ere, 1930-1980 tarteko mende Erdiko aldiari ari dela esan ahal dugu. Zahartzarotik begiratzen dio Eujeniok bizitzako iraganari —bereari eta bere ingurukoari—. «Aldi hartan bizi izan ginen gu. Eta aldi hartan egin genituen bizitza



Eujenio Agirretxe Azpillaga (1920-2005)

eta jarduera agertu nahi izan ditut orrialde hauetan. Baina gure burua eta gure izakera ez ziren aldi hartan gogortuta gelditu», dio liburuaren azken kapituluaren buruan.

Autobiografiatzat har daiteke Eujenioren liburua, baina agian antz handiagoa du San Agustinen *Aitorkizunak* liburuarekin, bizitzaren kontakizun kronologikoarekin baino. Oroitzapenak eskaintzearekin batera, horien inguruko gogoeta kritikoa —eta auto-kritikoa— nabaria da orrialdez orrialde.

Eguneroko bizitzan bere buruarekiko «in-konformista» ameslari eta ingurukoenganako zirikatzaile deseroso agertu izan zenak,

nekez eskain zezakeen bere esperientzia eta lanen gogobeteko azalpen zuritua. Zurikeria ororen etsaia zen Agirretxe, idealista zen neurrian.

Ez da, bestalde, autobiografia intimista Agirretxeren liburua; harreman zabalen eta elkarlaneko proiektu askoren historia da. Euskal Herriak, bertako gizarteak eta Elizak bizi izandako garai eta urte zalapartatsu eta gogorren ispilua da liburua; eta, aldi berean, mundu zabaleko gorabehera larri nahiz aurrerapen itxaropenezkoen oihartzuna. Horrekin guztiarekin biziki sintonizatuz, egonezin eta sufri-mendu ugaritan, baina grina eta esperantza handitan ehoturiko esperientzia agertzen digu Agirretxek bere autobiografian.

Bazituen Eujeniok bi maitasun eta atxiki-mendu min eta tinkoak, haren biografia oso lotzen duten hari nagusiak: Euskara eta Euskal Herria, batetik, Jesukristo eta Eliza, bestetik. Biak batean bizi eta landu izan zituen berak, eta horrelaxe ageri dira liburuan. Ebanjelioa predikatzea eta euskara zabaltzea —edota Ebanjelioa zabaltzea eta euskara predikatzea—: biak ziren Euskal Herria salbatzeko bidea Eujeniorentzat. Horren zerbitzuan jarri zituen bere hitza eta ahotsa.

Gure gizona barrutik ezagutzeko ez ezik, berak intentsitate handiz eta modu ia dramatiko bizi izan zuen «aldi hartako» euskal gizarteko eta Elizako giro eta jokabideak ezagutzeko, eta horietan gertaturiko aldaketa sozial eta erlijiozko handien berri



Agirretxeren liburu «autobiografikoaren» azala (1995)



Familiaren argazkia (1935-36). Erdialdean Eujenio, Gabino anaia fraidearen atzean

jakiteko, liburu baliagarria da oso Agirre-
txerena. «...zenbait aldakuntza zail eta minkor
jasan behar izan ditugu sasoi hartako gizonek,
gure lehengo burubideak utzi eta berri batzuk,
hobeak zirelakoan, aukeratzeko...», dio berak
(181 or.).—Irakurleak aurkituko dituen hone-
latsuko aipuak liburu horretatik hartuta dau-
de, bestelakorik adierazi ezean—.

Autografia kritikoa idatzi zigun, beraz, Agirre-
txek, bere zahartzaroko baketik bizitzako ira-
ganarekin bakeak egin nahian nolabait.

Otegitxotik Arantzazura

Otegitxo («Otetxo») baserrian jaio zen
1920ko azaroaren 15ean eta sortetxeari
bereziki atxikia izan zen Eujenio. «Otetxo»
deitzen zioten ikasle-lagunek gaztetan, eta
berak ere horrela sinatu izan zituen bere
idatziren batzuk. Bederatzi urte zituela galdu
zuen ama —haren heriotza gogoratu hasten
du bere liburu autobiografikoa—. Aita, berriz,
1943ko udaberrian galdu zuen, Arantzazun
Teologia ikasten ziharduelarik, eta apaiztu
baino hilabete batzuk lehenago.

Haurtzaroa Errezilen eman zuen, baserrian, lan giro latzean baina famili giro gozoan, eta herriko eskola eta elizaren inguruan. Etxeko eguneroko otoitzaldi ugariekin batera, herriko elizan akolito izan zen; orduko «erlijiokeraren gogortasuna» oroitzen zuen zahartzaroan. Bazen lagunarterik eta jolasik ere, jakina. Haur-haurretatik zaletu zen Ernio mendia-ekin; bizitza osoan eutsiko zion maitasun horri: «Jainkoak daki zenbat alditan izan naizen han bertatik Euskalerra osoari begira», dio azken aldikoz, 74 urte zituela, hara igo zen

eguneko egunkarian (1995-08-18). Dramatikoa samarra izan zuen, bestalde, jaitsiera.

Errezilgo mutikoen eskolan ikasi zuen irakurtzen eta idazten. Gaztelaniaz; maisua ere erdalduna baitzuten. Euskaraz egitea debekatua zuten gainera, eraztunaren zigor eta guzti. Baserriko mutikoak, ordea, euskara besterik ez zekien, jakina, familiatik eta lagunartetik. Bere buruan jasan behar izan zuen euskararen zapalkuntzaren esperientzia mingarria. «Euskaraz hitz egiteagatik, ni neu eskolan —bazkaltzera ernten gabe— itxita



Otetxo baserria (Errezil): Eujenio Agirretxeren jaiotetxea

behin baino gehiagotan egona nauk», zioen 1970ean *Jakin* aldizkarian.

Bere hamaika urteak betetzear zituela, 1931n, utzi zuen etxea, fraide izateko asmoz —Hiru anaia zaharrago zituen Eujeniok ordurako erlijioso joanak: Gabino (frantziskotarra), Amadeo (pasiotarra) eta Joan Mari (jesuita)—.

Arantzazun hiru urte eman zituen eta Foruan bi; nobizio-urtea Zarautzen (1936-37); Filosofia urteak Erriberrin (1937-40). Eta Arantzazura berriro, Teologiako ikasketak burutzera (1940-44). Arantzazun apaiztu zen, eta Meza berria Errezilen eman zuen 1944ko Urteberri egunean.

DIRECCION POSTAL	GOIZ-ARGI
Santo Cristobal PP. Franciscanos ARANZAZU Franqueo concertado 27/24	1974 — URRILLA, 2 — XV URTEA — 211 gn. ZENBAKIA
ATARIA	
ERNIO-MENDITIK BEGIRA	
Dozenako kilometro tipl-tapa mendiz naiz kamioz egin ditudan egun auetako batean, nere blotzeko Ernio zaar maitea ere ikutu dute nere oñak eta begiak. Aitor'en seme aintzifakoerien oroitzapenez eta euskal-animaren laztanez inguratutako mendi trinko ari eta ango arrizko gurutze latzarri nola ez musurik maitetsuena eman? Alaxe egin nun-ba; eta, gafierra, gure gurasoen usario zaarrari jarraituz, kalbarioak errezatu ere bai!	An-emenka antolatu diran gai bateko eta besteko ikastaroetan ere, bai amaika eta amaika euskaldun!
Bakar-bakarrrik nintzan, eta antxe —Euskalerrri guztiari begira— ordu eder bat igaro nun, pentsaketa naasian sarturik.	Gure Arantzazu, Urkiola eta beste espiritu-lekuak ere izugarriko betekadak ikusi omen dituzte.
Udara naike joana zan eta udazkena gañean	Bakoitzak daki nundik eta nola egin dun udara eta bakoitzak erantzun bearko du bizitzaren pusketa eder oni buruz.
	Ernio'ko gurutzea zutik dago, besoak zabal —itxaropenaren besoak baliraxe— denoi aurrera begiratzeko eta jarraitzeko oiu egina.
	NORK ZER
	«Aspaldiko esaera da errezago dala ero edo zoro batek eun gizon prestu erotzea, eun gizon zentzudunek ero bat zintzo ta zur biurtzea baño».
	Aspaldiko'k, 2'gn. orr.
	«Penagarria da benetan «Uztapide»ren bertsoak entzuteko zoririk ez izatea; erriak gogo ori ezin ase al izatea».
	Basarri'k, 3'gn. orr.
	«Iñoiz entzun dugu onelako zerbait: Komunismoak ezpala esnatu izan gizadia, onezkero goserik illak ituan munduko iangille guziak».

«Ernio-menditik begira» *Goiz-Argi* aldizkarian. Autobiografian dioenez, hamaikatxo bider igoa zen Herniora, eta gailurretik Euskal Herria begira egona



Eujenio (erdiko betaurrekoduna) lagunekin Arantzazuko kolejoan. Lehen ilaran ezkerretik hasita, bigarrena J. A. Gandarias da eta hirugarrena Luis Villasante



Eujenio, mutiko, Errezilen Misio-eguneko antzerkia egiten. Hor txikiena ageri dena, gero luze haziko zen

Ilunpean Izarño eta ezezkoaren aurka Bai

Barnetegian bizi arren, Espainiako bigarren Errepublikaren urte zalapartatsu baina esperantzazko haietan gizarteko mugimendu politiko eta kulturalen berri iristen zitzairen iritsi; urte haietantxe euskaltzaletu eta aber-tzaletu omen zen, bere autobiografian aitortzen digunez (121-122 or.); eta euskarazko liburuak eskuratzen eta irakurtzen ere saiatua zen. Nobizio-urtea Zarautzen hasi zuenerako, ordea, gerra zibila lehertu berria zen, eta Gipuzkoaren parterik handiena matxinatuen eskuetan eroria. Ondoriozko euskara eta euskal kulturaren aurkako erasoaldi hartan, beldurra zen zabaldua inguruan eta beldurra sartua komentuetara ere. Nobizio gazteari euskarazko liburuak kendu eta erre egin omen zizkion fraide arduradunak.

Filosofia ikasteko giro eskasa izan zuten hurrengo urteetan fraide gazteek Erriberrin, Gerra zibila bete-betean zelarik. Ikasleetako askok soldadu joan behar izan zuen. Agirretxe bera ez zuten frontera eraman; baina gerrako bestelako zerbitzutan jardun behar izan zuen zenbait hilabetetan, Iruñean. Noiz-bait komentura bildu zirenean ikaslagunak, Agirretxe eta beste zenbait taldean elkartu egin ziren, beren «fedeari» eusteko: «isilik baina biziki euskal suari —gure fedearekin batera— gure bihotzetan beti eutsiko geniola hitz eman genion elkarri» (35 or.).



Eujenio, filosofiako ikasketak utzi eta soldadutzara behartuta (Iruñea, 1938). Ez zuen gerra frontera joan beharrik izan

Amaitua zen gerra, eta berriro Arantzazun (1940). Ilunak eta ezkorrak ziren urte haiak Euskal Herriarentzat eta euskararentzat. Emandako hitzari eutsiz eta esperantzaren argi izpiaren bila, Agirretxek berak eraginda, Teologiako ikasle talde batek beren arteko aldizkaria sortu zuen, euskara lantzeko. *Izarño* zuen izena; geroxeago, Salvatore Mitxelenaren iradokizunez, *Bai* izendatu zuten taldea eta barne-aldizkaria —Lizardik euskal egunkariarentzako proposaturiko izen berarekin—, Euskal Herri eta euskara ukatuen aurrean beren baietza berretsi nahian. Orduko ilunpe eta zailtasunen artean taldean bizi zuten

barne-suaren adierazgarri izan daiteke Eujenio bere kideentzako idatzitako testu batean emandako taldearen «definizioa»: «... gu, Euskalerrria euskaraz tente ta Jainkoaruntz jartzera goazenok». Besteak beste, gerora euskal kulturari hain ezagunak gertatu zaizkigun hauek ziren orduko «baikide» gazteak: L. Villasante, S. Mitxelena, K. Iturria, E. Agirretxe, J.A. Gandarias.



Eujenio Agirretxe, fraide gaztea

Gaztelerritik Euskal Herrira

Apaiztu ondoren Burgos probintziako La Aguilera herriko komentura bidali zuten Eujenio, S. Mitxelenarekin batera. Bertan hasi zituen hark herrietako sermoi-lanak; han emandako urtean irakurri omen zituen Santa Teresa Avilakoaren obrak ere. Hurbildik jarraitu zituen, bestalde, Salbatore lagunaren *Arantzazu*. *Euskal poema* obraren erditze-lanak.

«Erbestaldi» hura amaitu bezain laster (1945eko udan) Zarautzera, hasieran, eta udazkenean Arantzazura bidali zuten. Handik aurrera bizitza eta lana, ia osorik, Euskal Herrian eman zituen: zazpi urte Arantzazun (1945-52), eta berriro Zarautzen (1952-1958), ondoren Bilbon (1958-1959), Tolosan (1962-1963), berriro Arantzazun (1963-1966), Durangon (1966-1969), berriro Bilbon (1969-1977) eta azkenik Erreterian (1977-1992) eman zituen bere urte sasoikoenak. Zahartzaroan sartuta, Zarautzen jardun zen, ekintsu artean (1992-2004); azkenik, gaixo eta ezindua, Bermeoko fraideen komentu-erietxera eraman zuten. Bertan hil zen 2005eko uztailaren 7an. Irakurlea konturatua denez, 1959-1962 bitarteko hutsunea dago data horietan. Hain zuzen ere, urte horietan jardun zen *Mundu Hobearen aldeko Mugimendua* izenekoan: Erromatik hurbileko Rocca di Papa herrian aurrenik, ikasketak egiten, eta Segoviako La Granja herrian Mugimendua zuten etxean gero.

Hitzaren indarra

erriz herri jardun zen Agirretxe predikari 1945-1959 urteetan: Hondarribia, Zegama, Hernani, Tolosa, Zarautz, Eibar, Donostia...; Arbizu, Ezkurra...; Aramaio, Gasteiz...; Gernika, Plentzia, Barakaldo, Erandio, Bilbo... Herri-misioak, bedertziurrenak, gogo-jardunak, Aste santuko predikuak, Arantzazuko Gazteen gau-igoerak, santuen panegirikoak, jai handietako sermoiak. Hego Euskal Herriko herrialde guztietan ziren ezagunak Agirretxe gartsu eta gihartsuaren irudi lerdena eta ahots ozena. Bereziki ezaguna eta miretsia zuten, ordea, Arantzazuko erromesek.



Zarauzko misioan predikari (1950)

Hitzaren indarrean eta enfasian oinarritzen zuen Eujeniok bere oratoria, gorputzeko imintzio edo kolpe teatraletan baino gehiago; mezuaren giharra nabarmendu ohi zuen, literatur dotorezien aurretik. Hala ere, hitzaren beroarekin batera, bazekien jendearen gertuko adibideak eta konparazio konkretuak baliatzen. Egunean eguneko albiste deigarriren bat aldarrikatuz jarri ohi zituen bat-batean adi-adi bere entzuleak: «Notizia bat etorri zaigu. Hil da», hasi zuen bat-batean Ostiral santuko sermoia, Seguran, 1997an; eta Ostegun santuko beste sermoi bat honetara: «1950 urte direla zerbait handia gertatu zen



Erromako Rocca di Papa herrian «Mundu Hoberako Mugimenduaren» ikastaroan parte hartu zuen taldea (1959).
Aurrean eskuin aldean, Eujenio Agirretxe

munduan». Edota bere eta entzuleen arteko kidetasuna nabarmenduz abiatu ohi zuen sermoia; 1946ko apirilaren 12an Ondarroan egindakoaren hasiera izan daiteke horren adierazgarri: Arantzazuren —bera «Arantzazuko semolaria» zen— eta ondarrutar arrantzaleen arteko harreman historiko estuak goraiatuz hasi zen: «Ondarroan nago, baño Arantzazun banengon bezelaxe ikusten zaituztet».

Aspaldiko urte haietan Bibliako latinezko esaldia ahoskatuz hasten bazen ere, beste sermolari asko bezala, Agirretxe ez zen izan hizlari «akademiko» edo klasiko horietakoa; bere estilo pertsonala landu zuen. Elizako goi-pulpititik, udaletxeko balkoitik, nahiz prozesioko furgonetatik mintzatu,

jende tartean zegoela zirudien, hurbileko. Haren sermoigintzako beste ezaugarrietako bat aipua dira: itzal handiko autoreen esaldiak ekarri ohi zituen maiz bere hitzari itzal handiagoa emateko. Koaderno oso bat utzi zigun, eskuz idatzia, horrelako aipua gaila jasotzen dituen: «Pensamientos. Citas interesantes» du titulua.

Ez digu bere sermoien testu osorik asko utzi; idatzitako sermoi-material gehien-gehienak eskemak ditu, zabalak eta landuak, hori bai; zalantzarik gabe bere baitan luzaroan hausnartuak. Eujenio ez zen inorengandik jasotako nahiz norberak behin idatzitako sermoiak buruz ikasi eta behin eta berriro jaulkitzen zituzten sermolari zahar haietakoa; baina ez zen inprobisatzailea ere.

Hizlariaren hiru estiloak

Ezaugarri nagusi horien gain, hiru garai —agian garai jakinak baino gehiago hiru metodo eta estilo— bereiz genitzake Agirretxeren hizlartzan: a) Jendolde handien aurreko sermoiak (herri-misioak eta eliza edota plaza beteko hitzaldiak); b) Talde espezifiko eta aukerakoentzako zenbait egunetako berrikuntza-jardunaldiak («Mundu Hoberako Esercitazioni» izenekoak, San Ignazioen Gogojardunak, etab.); c) Oinarriko kristau elkarte txikien katekesia eta hurbileko animazioa, fede sakonketari begira. Hiru metodo-estiloak erabili zituen, erabili, nolabait bere bizitza osoan, baina herri-misio jendetsuak nabarmendu ziren lehen fasean (Kontzilioaren aurretik); Mundu Hoberako elite-jardunaldiak nagusitu ziren bigarren fasean; talde eta elkarte txikien katekesian saiatu zen nagusienik hirugarren fasean, Kontzilioaren ondoren.




Mikrofonoaren aurrean, entzuleei begira, hitzaldia hasteko gertu

Profetaren zentsura

Edozein gaitaz ari zela ere, erreferentzia sozialak oso maiz ekarri ohi zituen, gatazka politiko-sozialei ihes egin gabe. Jakina, frankismoaren garaian ez zen trabarik falta izan gure predikari profetikoaren hitzarentzat. Gaztelatik lehen aldikoz Zarautzera iritsi orduko, honako aholku hau eman omen zion komentuko nagusiak: «Kontuz, gero, politikan etzaitzela sar!»... «Gero ere askotan errepikatu zidaten kontseilu edo agindu hori, batez ere, publikoki hitz egin behar nuen egunetan [...]». Ze ote zen, bada, politikan sartzea edota ez sartzea? Makina bat buruhauste ekarri izan digun galdera eta arazoa izan da horixe», gaineratzen du bere liburuan (53-54 or.).

Berak ez zuen benetako debekurik izan predikatzeke, gobernadoreen edo gotzainen aldetik, S. Mitxelena izan zuen bezala; baina ohartarazpen garrantzirik bat baino gehiago. Eta zentsura-giro horri aurre egin behar izan zion. Mutilen Arantzazuko igoerak bertan behera geratu behar izan zuen 1968ko irailean, Gipuzkoan ezarritako salbuespen-legeagatik. Hurrengo urtekoan honako hitz hauekin hasi zitzaion Agirretxe hitz egiten Oñatiko plazan bildutako gazteei: «Emen gera. Bear bada azkenengo aldiz. Bearbada gaur esango diogu agur alkarri. Igez etziguten martxa au egiten utzi. Zeñek esango du datorren urtean izango danik?». Azken gau-igoera izan zen 1969koa.



«Mundu Hoberako Mugimenduak» Italiako Rocca di Papa herrian zuen etxeko terrazan (1959)

Aldizkaritan: izenez eta ezizenez

uskal kazetaritza idatzia landu zuen Agirretxek; baita mintzatu ere, irraturan. Eliz apostolutzari begira eta zerbitzura eman zuen gehienbat bere idazle-lana. Hainbat arazo sozialekin batera, teologiako, etikako eta espiritualitateko gaiak landu zituen nagusiki bere idatzietan.

Hasierako kazetari lanak Frantziskotar Hirugarrendarrei lotuta daude batez ere. Bazen garai hartan *Irugarrengoan Irakaslea-El Maestro de los Terciarios* hilebetekari elebiduna (1944-1949), 1950etik aurrera bitan banatu zena: *Anaitasuna* (euskaraz) eta *Franciscanismo* (gaztela-

niaz); ia hilero argitaratu izan zuen horietan bere artikulua euskaraz hamabost urtez (1944-1959).


Jose Antonio Garatek lankide leial izan zuen Eujenio bere kultur ekimenetan. 1946an sortu zuen Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia; erredakzio taldekoa izan zen Agirretxe, eta larunbateko orrietan idatzi ohi zuen igandeko Ebanjelioaren iruzkina. 1960an sortu zuen Garatek *Goiz-Argi* aldizkaria; horretan ere lankide saiatua izan zen Agirretxe urte askotan; 1962-1963 urteetan aldizkariaren zuzendaritza izan zuen gainera bere esku. Aldizkari horretako



Agirretxeren sinadura *Goiz-Argi* aldizkariako atariko artikuluan. Sarri samar idatzi ohi zuen editoriala

hainbat artikulu (1965-1975 bitartekoak) daude bilduta *Baserriko Leihotik* liburuan. *Arantzazu* aldizkarian ere hainbat lankidetzaz eman zuen —aldizkari horren zuzendari ere izan zen denboraldi batez—. Aipatzekoak dira, era berean, egun-karietan argitaraturiko lankidetzak: *Diario Vasco*, *Deia*, etab. tan. Irratian, berriz, gogoeta programa bat baino gehiago egin zuen.

Bere izenaz gain goitzenak erabili zituen Agirretxek bere kazetaritzako lanetan: *Otetxo*, *Anaia*, *Egiaundi*, *Atarre*, *Zubigile*, etab.



Arantzazuko erromesaren gida espiritualua (1956)

Liburuak eta liburugaiak

Espainiako Gerra zibilaren ondoren Hego Euskal Herrian argitaraturiko liburuetan aurrenetarikoa izan zen Agirretxek idatzitako *Arantzazuko Ama Birjiñaren bederatzi-urrena* liburuxka (Tolosa, 1946). Hurrengo hamarraldian eman zituen argitara beste bi liburu, deboziozkoak horiek ere: *Umetxoen otoitzak*




Tolosan argitaratu zuen (1946). Gerra zibilaren ondoren Hego Euskal Herrian euskaraz argitaraturiko lehen liburuetakoa

(berak sinaturiko sarrerarekin, Arantzazu, 1950) eta *Arantzazu'ra erromes* (Arantzazu, 1956).

Bestelakoak dira geroago argitaratu zituen bi liburuk: *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan* eta *Baserriko leihotik. Aldi hartako kezak eta gogoetak. 1965-1975, Goiz Argi* aldizkariko hamar urtetako artikuluen antologia.

Beste zenbait liburu edo liburugai ere utzi du Agirretzek argitaratu gabe. Espiritualitate alorreko gaiak darabiltza gehienbat horietan.

Aipatzekoak dira haren euskarazko itzulpen-lanak ere, gehienak argitaragabeak. Itzulzaile librea zen Eujenio, bere interpretazio eta sormenari bide eman zalea —dohain baliagarria batzuetan, baina arriskutsuegia maiz idatzi klasiko-historikoen itzulpenetan—.



Goiz-Argi aldizkarian argitaraturiko artikuluen bilduma (1998)

Euskararen militantea

Esperientzia latzak bizi izandako gizona zen Agirretxe, euskara zio. Errezilgo eskolako zigorrak aipatuak ditugu; Arantzazuko kolegioan halako zigorrik ez, baina erdara nagusi: «... erdara hutsezko mila errezo», dio berak (27 or.). Urte gogorrek jasan behar izan zituzten komentuan ere Gerra zibilaren ondoko urteetan, euskara eta euskal kulturari buruz susmo txarreko eta debekuzko giroarengatik: «... fraide bizitzari jarrai nahi bagenion, abertzale eta euskarazale izaterari uko egin behar geniola behin eta berriz esango zitzai-gun. Esan eta egin: nire laguna kanpora bota zuten» (34 or.). Euskaraz min-



Arantzazuko Basilika berriaren inauguraziokoan: Basarri eta Uztapide bertsoarako gertu; Agirretxe, gai-jartzaile (1955)

tzatzeko debekua ere jasan zuten Teologiako ikasleek, Erromatik bidalita zetorren bititari jeneralaren aldetik.

Giro hartan lortu zuten euskararen barne-suari eustea Arantzazun, *Bat* taldearen barruan. Bere aldetik ere saiatu zen Eujenio euskara lantzen, bere apaiz-lanetarako beharrezko jotzen baitzuen. Izatez oso murriztuta geratzen zitzaien euskara bestela, beren apaiz-lanetan jarduteko, fraidegaien ikasketetan leku oso txikia baitzeukan euskarak orduan. Teologiako ikasle zeneko urte haietako da seguruenik oraindik ere Agirretxeren artxi-boan aurkitu ahal dugun koaderno, non euskal atzizkien zerrenda osoa baitzeukan

kopiatuta bertan Sebero Altubereren liburutik hartuta. 1978an, 58 urte zituela, atera zuen Agirretxek Euskaltzaindiaren «Euskara D titulua». Eta zazpi bat urtez euskara-irakasle izan zen Errenteriako Tolareberriko eskola publikoan. 1986an utzi zuen lan hori.

Euskararen bizitzaren eta erabileraren alde ahalegindu zen Eujenio Agirretxe: predikuan, Eliz elkartean eta erlijiosoen bizitzan. Euskal jendeen duintasunak eskatzen zien, beraren iritziz, predikariei eta apaizei, euskara erabil-



Euskaltzaleen Biltzarreko partaideak. Eujenio, lehen ilaran, eskuinean (1956)

tzea eta duintasunez erabiltzea haien aurrean. Horren adierazgarri da, 1953an Salbatore Mitxelenarekin batera Eibarren euskaraz eman zuen herri-misioa, nahiz eta bi hilabete lehenago erdaraz emana zuten besteren batzuek. Era berean, horren adierazgarri da 1964an Hernaniko herri-misioan gertaturikoa, Agirretxek berak kontatua duenez. Bi misio eman zituzten aldi berean: erdaldunentzat, batetik, eta euskaldunentzat bestetik. Erdaldunentzako iluntzeko ekitaldi nagusia parrokian jarri zuten; eta aldi berean euskaldunak «Zintzotasuna» izeneko zinema-areto estu eta eskasean bildu behar zuten berentzako hitzaldi berezia entzutera. Euskaldunen protesten ondoren lortu zuten iluntzeko ekitaldia ere elizan jartzea euskaldunentzat; euskaldunen eta parrokoaren bitartekoarena egin zuen Agirretxe misio-predikatzaileak (ik. 129 or.).

Erlijosoen eta bere Ordenako frantziskotarren artean euskararen erabilera zabaltzen ahalegindu zen sutsuki Agirretxe. San Frantziskoren oinarrizko idatziak euskaratuak zituen L. Villasantek; Agirretxek eta beste lagun batzuek gutuna bidali zioten nagusiari, komentuetan euskarazko testua erabiltzea bultzatzea zezan.

Euskararen inguruko biltzar eta jardunalditan parte hartu zalea zen gainera. 1956an Euskaltzaindiak Arantzazun antolaturiko Euskalzaleen Biltzarrean partaidetza bizia izan zuen, bere hitzaldirik izan ez arren. 1963ko Euskalzaleen Biltzarrean, osterara, bere hitzaldia aurkeztu zuen: «Gaurko izlariak eta euskera»; autoreak bertan izaterik ez, eta Villasantek irakurri zuen.

Euskarari buruzko bere pentsamendua zenbait artikulutan ez ezik, hitzalditan (batzuetan argitaratu gabekotan) ere agertu izan zuen Agirretxek; horien artean bereziki aipatzekoak dira, 1963an Euskalzaleen Biltzarrean emandakoa-rekin batera, Frantziskotarrek 1960an Arantzazun antolaturiko «Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera» izeneko jardunaldietan emandakoa —«Los medios industrializados y el euskera» *Cantabria Franciscana* aldizkarian argitaratua, 57-58-59 zenb., 1961, 294-295 or.— eta Euskal Herriko Ordena Erlijosuetako Nagusi Probintzialen II. Batzarrean, Loiolan, irakurritakoa: «La lengua y la cultura vasca en la vida de la comunidad religiosa» (testu daktilografiatua, 1974). Hitzaldiokin batera, ordea, aipaturiko liburu «autobiografikoa» dugu, euskarari eta euskal kulturari buruzko haren pentsaera ezagutzeko iturririk behinena.

Euskara eta herri nortasuna

Agirretzek ez zuen hizkuntz antropologiako edo hizkuntzalaritzako teoria berezirik asmatu, baina analisi soziolinguistiko interesgarriak badu bere hitzaldi eta idatzietan. Euskarari buruzko bere iritziak ematean bere bizitzako eta laneko esperientzia eta horien

inguruko gogoeta kritikoa eskaini izan zigen zuzenean, eta hizkuntz praktikara bideratu zituen batez ere bere gogoetak. Euskal Herriak bere «herritasunaren» eta euskaldunak bere «nortasunaren» ezaugarriak behinena du euskara, haren iritzi; herritasun-nortasun horiek bizirik zaindu eta garatzea, berriz, gizatasunak ez ezik kristau fedea ere eskatzen du.



Domingo Erkizia erreizildarra eta Migel Aozaraza oñatiarra kanonizatu zituztenean, Euskal Herritik Filipinetara joandako taldea.
Erdian Eujenio Agirretxe. Manila, 1981

Agintarien eta Elizaren erantzukizuna

Euskararen «salbaziorako» bi ardatz edo giltzarri ikusten zituen berak beharrezko: Botere politikoa (Estatua) eta Eliza. «Todo se podrá salvar en el euskera el día en que la autoridad estatal —sea cual sea— no sólo permita, sino estimule y fuerce a los ciudadanos al cultivo hablado y escrito de nuestra lengua materna», idatzi zuen 1961ean, euskararen ofizialtasuna eskatzearekin batera. Bere kritikarik gogorrenak Estatu agintariei zihozkien, jakina, urte luzetan euskararen aurka egindako politikarengatik.

Bestalde, Elizaren, apaizen eta mojen jarrera eta jokabideari garrantzi apartekoa ematen zion Agirretxek, euskarak bizirik iraun eta aurrera aterako bazen gure Herrian.



Fray Joan Zumarragaren omenezko ekitaldian hizlari (Durango, 1952)

Eliz predikazioa eta euskara

Euskalduna euskaraz bizi ahal izatea da helburua harentzat; eta, beraz, fededunak ere bere fedea euskaraz bizi ahal izatea eta erlijiosoak bere erlijioso-bizitza euskaraz egin ahal izatea (ik. 158 or.). Hortik abiatuz, tinko defenditu zuen euskara erabili beharra euskaldunentzako apostolutzan, elizkizunetan eta predikazioan.

Honako neurriok proposatu zituen Euskaltzaleen Biltzarreko aipaturiko hitzaldian (1963): 1) Eliz hizlari gehiago prestatzeko, apaizgai eta fraidegaien ikastetxeetan euskararen ikasketari bestelako hizkuntza beharrezkoenari ematen zaion leku bera ematea; 2) Hizlariak euskara «ona, ondo josia ta ikasia» erabiltzen ahalegintzea; 3) Erdaraz entzun ohi dituzten gai modernoak euskaraz ere ematea; 4) Euskal predikariei beren lana errazteko, euskarazko aldizkari berezia sortzea; 5) Kristau euskaldunen aldetik euskarazko hi-tzaldietara joateko «moda» sortzea; 6) Euskarazko hitzaldiak ordu egokietan ipintzea; 7) «...gaurko kultura-gai guztia euskeraz esaten lagunduko digun iztegi bat» prestatzea Euskaltzaindiak.

Eta honetara amaitu zuen bere hitzaldia: «...erantzunkizun txit aundia degu guk izlariok ere euskeraren bizitza ta etorkizunari buruz. Geroak juzgatuko gaitu edo txaloka edo zigorka».

Erlijiosoak eta euskara

Euskal erlijiosoen euskararekiko ardura suspertzen saiatu zen, horiek beren ikastetxeetan, apostolutza lanean nahiz etxeko barne-bizitzan erabil zezaten. Loiolan 1972-79 urteetan egindako Euskal Herriko Erlijosoen Batzar haien sintesia honetara dakar Agirretxek: «Hainbeste euskal erlijioso(a) urrutiko misio lurraldeetan gure laguntza jatorki zabaltzen dauden bezalaxe, gure Herrian bertan ere horixe egin nahi dugu: Herri honi Jainkoaren Erreinuaren Berriona bere hizkuntzan eta kulturaren eman» (171 or.). Euskal Herriko erlijioso-komunitate hainbaten benetako «kolonizazio kulturala», hizkuntzazkoa bereziki, salatu zuen indarrez.

Mojetara sartu ohi ziren neska euskaldunei buruzko kezka berezia agertu zuen Agirretxek, hainbat bider horiek erdara hutsez bizitzera aldatu behar izaten baitzuten komentuan. Arazo horri erantzuteko sortu eta gidatu zuen ARAMI (Arantzazuko Amaren Misiolariak) elkarte, kristau neska euskaldunei beren fedebizitza eta lana euskaraz bizitzen laguntzeko.

Frantziskotarra izanik Eujenio Agirretxe, Euskal Herriko fraide frantziskotarren barne-bizitzaren eta apostolutzaren euskalduntzeaz kezkatu eta arduratu zen bereziki, idatzien bidez eta fraideen batzarretan hitz hartuz. 1979ko Frantziskotar Probintziako Kapitulurako (batzarrerako) gai horixe buruzko txostena lantzeko batzordean parte bizia izan zuen, bere idatzizko ekarpen eta guzti.



Senideak (1934). Lehen iladan daude anai-arreba guztiak —hiru erlijioso—, aita erdian dutela. Aitaren ezkerrean, Eujenio fraidegaia

Euskara modernoa eta Euskara batua

Baserriari oso atxikia izan arren, Euskal Herri industrialean ikusten zuen euskararen etorkizunaren giltza azken batez, ikuspegi guztiz modernoa eta errealista erakutsiz alde horretatik. «Se puede decir, pues, que en los medios industrializados se decide el porvenir de nuestra lengua, así como también en ellos se decide la vitalidad o desaparición de nuestra Religión, de nuestro folklore, etc.» (*Cantabria franciscana*, 16, 1961, 294 or.).

Horretarako, euskara bera modernizatu beharra argi ikusi zuen, Euskal Herri industrialaren hizkuntza izango bazen: Hiztegi modernoa landu beharrekoa zen, besteak beste. Bide beretik, Euskaltzaindiak bideraturiko euskara batuaren premia defenditu zuen, Euskerazaintzakoen aurrean ere; baina, bestalde, euskara herritarra eta erraza erabili beharra eta euskalkiak zaindu eta erabili beharra nabarmendu zuen, euskararen beraren biziraupenerako.

Zubigile eta euskaltzain

Euskaldunon arteko gatazketan zubigilearena egiteko bokazioa bizi ohi zuen Agirretxek. Zubigile ezizena erabili izan zuen, hain zuzen ere, hainbat idazkitan. Euskarari buruzko gatazketan ere kontrako aldean artean zubiak egitera jo ohi zuen, hala nola, euskara batuaren aldekoen eta kontrakoen artean. Azken batez, euskararen bidegintzan zubigilearena zuen gogoko berak.

Horiek guztiak kontuan izanik izendatu zuen seguruenik Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain 1998an; 1959tik zen euskaltzain urgazle.



Eugenio Agirretxe gazteen artean, Arantzazuko gau-igoeran (1956)

... Eta Arantzazu inguruan

Agirretxeren liburu autobiografikoaren titulu-luko hitzak dira. Bizitzako urte askotxo eman zuen berak Arantzazun: mutikotan hiru, gaztetan beste lau, Teologiako ikasle, apaiz gazte zelarik zazpi urte, eta gizon heldua zelarik beste hiru. Denetara bere bizitzako hamazazpi urte Arantzazun.


Baina Euskal Herriko beste lekuetan bizi zelarik ere Arantzazu izan zuen bere espiritualitatearen eta ametsen erdigunea. Sarritan joan ohi zen Arantzazura, errromesei predikatzen, Andre Mariaren Bederatziurreneko hitzaldiak egitera, fraideei nahiz sekularrei gogo-jardunak ematera... edota bisita hutsuan, erromes. Gogoangarriak geratu dira berak hainbat urtetan gidatu zituen gazteen (mutilen eta nesken) Arantzazurako igaldi haiek —gauz mutilena eta egunez neskena—. Hamaika urte zituelarik Arantzazura fraidegai



Mutilen Arantzazuko gau-igoeraren abiatzea Oñatiko plazan. Udaletxeko balkoitik agurtu ohi zituen Agirretxek

joan zenetik, bere bizitza osoa Arantzazuren inguruan eman zuela esan daiteke. *Aldi hartan eta Arantzazu inguruan* izeneko liburu autobiografikoarekin batera Agirretxek idatzi eta argitaraturiko beste bi liburuxkak Arantzazuren inguruan idatziak dira: *Arantzazuko Ama Birjinaren Bederatziurrena* bata (1946), eta Arantzazuko erromesaren gida espiritual modukoa bestea —*Arantzazura erromes*, 1956—.

Arantzazuren inguruko espiritualitatea Bai taldean eta bereziki Salvatore Mitxelenarekin batera landu zuen Agirretxek, Arantzazuko historialari moderno Jose Adrian Lizarralderen historian oinarrituta. Euskal Herri osoaren erdigune espiritualtzat hartzen zuten haiek Andre Mariaren santutegia. Gaztetako urte haietan idatzitako zenbait saiakera txiki utzia digu Eujeniok Arantzazuren inguruan. Euskal Herriaren Golgota edo Kalbario mendia da Arantzazu, euskaldun sufritu eta oinazetuen gozagarri.



Arantzazuko Basilika berria (1956). Horren eraikuntzarako herriz herriko eta etxez etxeko diru-bilketan parte hartu zuen Eujeniok

Teologiako ikasle zelarik *Bai* taldeak eraturiko Arantzazuren «historiari» buruzko antzerkia idatzi eta antzeztean ere parte berezia izan zuen berak. Arantzazuko Balada edo Kanta zaharren koadernoak eskuz kopiatu zuen osorik Eujeniok, seguruenik bere predikuetan erabili ahal izateko —horixe dugu, hain zuzen, koadernoak ospetsuaren eskuzko kopia bakarra—. Hogeita bi urte zituela idatzitako olerki zati honek agertzen du nolabait Eujenioren, eta oro har *Bai* taldearen, Arantzazuren inguruko espiritualitatea eta ikuspegia:

Ondamenaren lañotan dagon
beko munduari iges,
mendi santuko eguzkitara
gatozkizu bizi-naiez.
Gure bizitza t'itxaropena
zu bakarrikan zeranez,
eutsi ta salba gaitzazu, Ama,
zure Arantz orren babes!

Arantzazuko talaiatik «beheko mundua» era baikorragoz ikusten ikasi zuen gerora; baina beti ere talaia eta pulpituak izaten jarraitu zuen beretzat Arantzazuk. Bertan erromesei egindako sermoi ugariekin batera, Arantzazuko Andre Mariaren bederatziurrena sarritan predikatu izan zuen: Arantzazun bertan noski, baina baita Donostian, Zarautzen, Tolosan eta bestelako lekuetan ere.

1948ko Arantzazuko Andre Mariaren eguneko sermoia honetara hasi zuen: «Esta es la hora solemne y sagrada en que el alma de nuestra tierra se halla concentrada en Aránzazu»



Bizitzako azken argazkietakoa (2002),
Zarauzko komentuan aterea

—kontuan izan behar da Gerra zibilaren ondoko urte haietan egun horretako sermoia gaztelaniaz egiten zutela nagusienik, Gipuzkoako agintari politiko, militar eta eliztarrak aurrean zirelarik—. Bigarren partean, euskarazkoan, euskaldunen minaz jardun zuen Agirretxek. 1950eko jai bereko predikua ere berak egin zuen. Berrogei urte geroago, 1990ean Bederatziurren osoa predikatu zuen Arantzazun.

Karpeta berezia eratuta utzi zuen Agirretxek, Arantzazuren inguruan berak egindako sermoi eta Bederatziurrenen testuak eta eskemak jasotzen dituen, «Arantzazu» izenekoa. Interesgarria litzateke sakonetik aztertzea hori, Arantzazuri buruzko bestelako idatziekin batera.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiten jasotako laguntzagaratik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Maria Luisa, Otetxo baserriko etxeko andreari, familiako argazki-artxiboa bihotz zabalez uzteagaratik
- Manolo Beraza, Zarauzko Komentuko artxibozainari, Eujenioren bizitzako argazki-bilduma eta bestelako dokumentuak eskura jartzeagaratik
- Jose Antonio Agirretxe, Eujenioren ilobari, osabari buruz eskainitako jakingarriengatik eta bideraturiko bestelako laguntzagaratik

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko iraila

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2594-8 (Lan osoarena)
978-84-457-2597-9

L.G.: BI - 2585-07



1073028